

# berdink

kultura berdintasunerantz eraldatzen!

azaroa—2018




Diseinua  
Querida Duska,

Koordinazioa  
Susana Carramiñana

Testuak  
Samara Velte

Ilustrazioak  
Yolanda Mosquera

## Sutondotik plazara: emakumezko bertsolarien urteetako inurri-lanari aitortza



Bertsoa "kortset" gisara bizi dute bertsolari askok: errima eta metrikaren derrigorrak, publikoarekin funtzionatzen duenetik gehiegi urruntzeko beldurrak eta lehiaketetako gorputzaldiak nahi baino gehiago baldintzatzen die askori euren sorkuntza prozesuaz libreki gozatzea. Kortseta are estuagoa da emakumezko bertsolarien kasuan: aurreko guztiari plazan egoteko eskubidea daukatela frogatu beharra ere gehitzen zaio euren kasuan. Hala sentitzen dira, bederen, euretako asko: oraindik nagusiki gizonena den plaza batean.

Gainerako arte guztietan bezalaxe, bertsolaritza existitzen denetik aritu dira emakumeak ere bertsoan, eta euri zor diegu belaualdiz belaualdiko transmisioaren zati handi bat, besteak beste, sutondoan eta eremu pribatuan abestutako bertsoei esker. Euren ikusgarritasun publikoa, ordea, gizonena

Kontaktua  
kultura-hps-berdintasuna@euskadi.eus  
945 016 943



baino nabarmen txikiagoa izan da, sarritan euren jarduna bertso-paperetara murriztuz edo jendaurrean abestea esplizituki gaitzetsiz (XV. mendean debekatu ere egin zieten legez).

Duela lau hamarkadara arte, oso gutxi ziren plazara ateratzen ziren emakumeak. Bertso-eskolen sorrerarekin aldatu zen hori, besteak beste, hiru topiko hausten lagundu zutelako garaiko teorikoek: bertsolaria 'jaio' egiten zela —alegia, bertsolari ona bertsolari familia batetik zetorrela beti—, bertsolariak euskaldun zaharra izan behar zuela, eta emakumeek ezin zutela bertsoan egin. Simone de Beauvoirren 'Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da' maxima hura, bertsolaritzara ekarria, alegia.

Plazara irten nahi zuten eta horretarako trebatuta zeuden emakumeen kopurua nabarmen hazi zen, baina aurki ohartu ziren ez zutela baldintza parekoetan jokatzeko. Gizonen gisara aritu behar zutela sentitzen zuten maiz: gizonen kode, umore eta roletatik abestu. 2000ko urteen hasieran, emakume haietako

batzuk elkartu eta guztiek partekatzen zituzten arazoei izen-abizenak jartzen hasi ziren: sistemak 'gizonkera batuan' jardutera ez ezik, emakumezko bertsolariak etengabeko salbuespen izatera behartzen zituela ohartu ziren, eta plazan zein lehiaketetan nekez balioesten zirela emakumeen errealitatearekin zerikusi handiagoa zuten jarrera, gai eta hausnarketak.

Sistema horren aurkako aliantzak sendotuz joan dira harrezkero, besteak beste, 'Ez da kasualitatea' bezalako saioen bidez, Bertsozale Elkarteko genero lan taldearen bidez eta gaiari buruz esparru akademikoan sortu diren ikerketen bidez. Orain, lehenbiziko aldiz, emakumeek bertsolaritzan egindako ibilbidea jaso eta hari aitortza egiten dion egitasmo bat argitaratu dute euretako lauk: Ainhoa Agirreazaldegik, Uxue Alberdik, Miren Artetxek eta Ane Labakak. Plaza betetzeko bidean, ez baita komeni ahaztea nondik heldu den bakoitza plaza horretara.

>Uxue  
Alberdi

>Ainhoa  
Agirreazaldegi

“Euskarak eta politikak ez dute okupatzen plazan, baina emakumetasunak, amatasunak, feminismoak... horrek guztiak okupatzen du”

Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik aztertu dute emakumezko lau bertsolarik, eta poster tamainako infografia batean islatu dute. Eraitza aurtengo Durangoko Azokan aurkeztuko dute, eta bertan egongo dira salgai lehenbiziko 750 aleak. Ainhoa Agirreazaldegi (Elgeta, 1978) eta Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) egileen hitzetan —Miren Artetxe eta Ane Labakarekin batera osatu dute infografia—, “bertsolaritzaren definizio berrietarantz joango den bide” zabalago baten parte da proiektua.

**Bertsolaritzaren genealogia feminista bat egin nahi izan duzue. Zergatik?**

AINHOA AGIRREAZALDEGI: Askotan hutsetik hasten garelako; behin eta berriz gertatu zaigu belaunaldi desberdinei, eta gaur egun badaude moduak sarea sortzeko, oinarri bat partekatzeke, nondik gatozen ez ahazteko. Agian une batean fokoa jartzen dugu ikerlanetan eta ahazten zaigu zein ibilbide egin zen garai batean. Dena modu bisual, erakargarri eta partekatu batean jasotzea izan da helburua.

UXUE ALBERDI: Interpretazio jakin bat da, eta hori hautu bat da. Egin zitekeen genealogia bat, adibidez, txapelketetan nabarmendu diren edo plazan gehien kontratatzen dituzten emakumezko bertsolarien aurpegiak ekarriz. Eta ez da hori: hain zuzen ere arrakastaren eta talentuaren ulerkera patriarkala bera zalantzan jarri nahi izan dugu, ulertzen dugulako gu denok aurrera egiten ari bagara taldeari esker dela, eta banakako lorpenek ere zerikusi handia dutela taldean bultzaka ibili direnekin: diskurtsoak, pentsamendua eta komunikazioa lantzen; elkarrekin egoteko guneak, praktika feministak eta umore kode partekatuak sortzen; ez daudenak oihko plaza batean, frontoi batean eta gizon artean zaudenean.

**Noiz hasi zen genero ikuspegia sartzen bertsolaritzan?**



A.A.: Nik daukadan lehenbiziko oroitzapena 1990eko hamarkadaren hasierakoa da: Hondarribian bazegoen Emeki elkarte, eta eurak hasi ziren espreski emakume bertsolariei deitzen; Maialenek [Lujanbio] ere bertan egin zuen bere lehen saioa herritik kanpo. Feminismoa lehenago etorri zen bertsolaritzaren beraren autokontzientzia baino. Bertso munduko emakumeoi kontraesan handiak sortzen zizkigun mugimendu feministak: deitzen gintuztenean, esate baterako, Martxoaren 8aren inguruko saioetara, gehienon sentsazioa zen benetan saio mistoetan kantatu nahi genuela. Gero pixkanaka hasi ginen konturatzen ustez norbanako gisa gertatzen zitzaizkigun gauza

asko ez zirela gureak bakarrik, eta elkartzen hasi ginen. Lanbro bat bezala agertu zen gaia. 1993an izan zen Estitxu Arozenaren bertsoa: "Seguru nago egunen batean demostratuko dugula bertsolaritzak barrabilekin zerikusirik ez duela".

U.A.: Gainera, zein testuingurutan: hura izan zen Bertso Egun batean, denak gizonak ziren, eta bukaeran esan zieten [emakumeei] ea abestuko zuten. Eta lehenengo bertsoa izan zen: "Guk pastelaren ginda ez dugu izan nahi". Hori 93an, beraiek euren burua feministatzat definitzen ez zutenean —izan ere, garai hartan "feminista naiz" esatea ez zen gaur egun dena—, beraien jardunean baziren.

**Urte luzez, bertso saioetan emakume bakarra izango zineten askotan. Horrek are zailagoa bihurtzen zuen sareak osatzea?**

U.A.: Bai, eta ez hori bakarrik. Alde batetik dago bakarrik ibiltzea, oso gizon arteko munduan; baina aldi berean oso korporatibista eta leiala den mundu batean. Hasten zarenean, oso gaztetxoak zara eta segituan Andoni Egañarekin kotxez zoaz ez dakit nora, miretsi duzun horrekin; oso mundu txikia da, oso familiarra, eta, ondorioz, kuestionatzeko zailagoa. Gauzak ikusten hastea zure aitak, osabak eta anaiak kuestionatzen hastea da. Bertsolaritzaren definizio bakar horretan beti eman den irudia da bertsolariak oso ondo konpontzen direla elkarren artean, eta ez da gezurra: egia da barne komunikazio handiko mundu bat dela, hurbiltasun handikoa delako; baina aldi berean, talkak daudenean oso konplikatua dira kudeatzeko.

A.A.: Bertso munduak emakumeak onartzen zituen, baina ez zen mugitu emakumeak sartu zirelako. Emakumeek pixkanaka eraiki behar izan ditugu hankamotz edo landu gabe ikusten genituen espazio guztiak: genealogiak, erreferentziak... Bide hori egitea izan da behin eta berriro mailu batekin lurpean zuloa egiten hastea bezala. Batzuetan badirudi talka bat dagoela; guk aldarrikatzen duguna da ikusezin utzi dugun mundu hori bisualizatu nahi dugula, ez besterik. Batzuek hartzen dute euren munduaren kontra joko bazenu bezala, baina oraindik arakatu gabe dagoen espazio bat da.

**«Bertso munduak emakumeak onartzen zituen, baina ez zen mugitu emakumeak sartu zirelako»**



U.A.: Gu biok ama izan berritan hasi ginen 'Bertsolaritza: begirada feminista bat' hitzaldiak ematean. Gaur egun, plazan bertso saio dezente egiten ditugun amak oso gutxi gara: Amaia Agirre, Oihane Perea eta ni izango gara urtean 40 plazatik gora egiten ditugunak. Eta nik uste hor ere sortzen dela beste talka bat, konturatzen zarelako plaza ez dagoela zaintzari begira. Segur aski gizonezko bertsolariek antolatu duten zaintza horrekin aski dute, baina oso konplikatu da emakumezko bertsolari gisa ume txiki bat izan eta profesionalki bertsotan aritzea. Eta gai honetara ez gara iritsi oraindik bertsolaritzan. Ni konturatzen naiz nirea biziraupena izan zela: "Egin egingo dut", pentsatu nuen. Baina oso garai gogortzat daukat.

**Oro har, emakume gisa bizitzako etapa guztietan bertsolaritzan jarraitzea zaila da?**

U.A.: Bakardade handia da. Niretzat, alde batetik arnasa zen; nire ingurune guztiak babesten zuen jardun hori, beraz, bazen une bat ahazteko, kotxea hartzeko eta bertsolari izateko. Baina aldi berean, etxean uzten nuen horrek izugarrizko pisua zeukan niretzat, eta nire mundu profesionalean ezin nuen inorekin partekatu. Areago: zerbait esan dudanetan, leporatu didate amatasunaren bandera hartu izana, gehiegi hitz egitea horri buruz, modu jakin batean hitz egitea... Nire lo falta ezkututzen nuen; une batzuetan albokoari eskatu behar izaten nion kotxea hartzeko, lo hartzen ari nintzelako. Gero konturatzen zara

bertsolari bat aita izaten dela, eta pasatzen duela afari guztia bere umeaz hizketan. Hor ohartu nintzen zortzi urtean nire buruari sekula ez diodala baimenik eman hortik hitz egiteko. Gero, gainera, amatasunari buruzko gaiak jartzen dizkizute, zu oraindik hori bizitzen ari zarenean; kantatzen duzu eta epaitzen zaituzte... oso zaila da.

A.A.: Bertsoak daukan bat-batekotasun horretan, gogoeta egiteko denbora gabe, eta zure kontraesan guztiak epaituz. Izan ere, amatasuna zerbait bada, epaiketa da; eta bertsolari emakumeak gaur egun oraindik epaiketa handia jasotzen du. Aurpegia asko eman duten bertsolariek hori asko bizi izan dute. Diskurtso batzuk egiten badituzu, hori bueltan erraz etortzen da: bejetariano bati ez erretzailea izateko eskatzea bezala da.

U.A.: Gero galdera da zein diskurtsok okupatzen duen eta zeinek ez. Nik ez dut kantatu amatasunaz zenbait gizonezko kidek Realaz kantatu dutenaren laurdena, baina eurenak ez du okupatzen.

A.A.: Ez du okupatzen euskarak, politikak... baina emakumetasunak, amatasunak eta feminismoak, horrek guztiak okupatzen du. Eta aitortzarik eza: Xabier Aierdi soziologoak esaten du bertsolaritza politikazentristotik soziozentrismora joan dela, eta hori emakumeen eskutik etorri dela; azkenean, soziologia eguneroko bizitza delako, bizitza erreala, politikatik, gizartetik eta pertsonaletik daukana. Eta hori dena uztartu dugunak

emakumeak izan gara, baina ez da oraindik aitortzarik jaso. Nik ez dut inon irakuri benetan emakumeen ekarpena zein izan den, ez bada guk gure buruari aitortutakoa.

**Hori da proiektu honen helburuetako bat. Bide horretan identifikatu dituzue bertso, une eta saio esanguratsuak. Bat aukeratzekotan, zein aukeratuko zenukete?**

U.A.: Nik 'Ez da kasualitatea'. Emakumez bakarrik osatutako bertso saioak egiteak ahalbidetu digu, alde batetik, elkar ezagutzea eta lagun bihurtzea; izan ere, lehen, banaka batzuk bai, baina gehienok ez ginen lagun, ez genuelako topo egiten. Eta gaur egun esango nuke lagun taldea osatzeaz gain aliantza politiko batzuk sortu ditugula. Ez dira aliantza esentzial batzuk: ez da emakumeak garelako, baizik eta feministak garelako eta eraldaketa baterako lan egiten dugulako, esplizituki hitz eginez eta pentsatuz zertan egiten dugun bat eta zertan ez. Horrekin batera, gure umoreak, interesatzen zaizkigun gaiak, horiek jorratzeko ikuspuntu berriak... "emakumera batu" hori sortzen ari gara. Denek aipatzen duten zerbait da ohiko bertso plazan normalean bakarrik sentitzen direla, txapelketako gorputzalditik gertuago: hau da, frogatu egin behar dut banaizela gai eta hemen egoteko eskubidea daukadala. Eta, aldiz, 'Ez da kasualitatea'-n, onarpen hori alde zuzenetik baleukate bezala sentitzen dira. Beldurra kendu eta euren sorkuntza mailak gora egiten du. Aukeratzen dut hau, badaudelako erresistentziak honen

**"Seguru nago egunen batean demostratuko dugula bertsolaritzak barrabilekin zerikusirik ez duela"**

**—Estitxu Arozena**

aurka, eta leporatu izan digutelako tranpa egitea, ghetto bat sortzea eta hori ez dela errealitatea: joateko plazara, egiteko oihanean eta frogatzeko txapelketan. Iruditzen zait nahiko leporatze zaharra dela, eta beste gai batzuen inguruan diskusio horiek jada emanda daudela. Gero eta garbiago daukat sortu beharko genukeela 'Ez da kasualitatea' bat 40 urtetik gorako bertsolariekin, plaza emakume zaharrentzat prestatzen hasteko. Nik hemendik 20-30 urtera bertsolari izaten jarraitu nahi dut, baina ez badugu plaza prestatzen...

A.A.: Nik, osagarri bezala, diskurtsoak aipatuko nituzke: izan ere, iruditzen zait gogoeta edo ikerketa batzuetatik sortu zela plaza feminista bat sortzeko beharra. Sare bezala funtzionatu dute aurrera egin genezan ere, eta momentu batzuetan sentitu ditugun zalantzek erakutsi digute behin eta berriz pertsonala politikoa dela; feminismotik eta kultur mundutik elikatu gara, eta hori ezinbestekoa izan da. Guk diskurtso horiek eraiki, jaso eta irakurri ez bagenitu, beharbada gaur egun ez ginateke praktikan ere hain indartsu egongo. Badirudi bagaudela garai batean zeinetan jada itxurazko berdintasun batera iritsi garen; eta esango nuke 'Ez da kasualitatea' asko behar ditugula oraindik, eta ikerketek jarraitu behar dutela.

U.A.: Bertsolaritzaren 2017ko ikerketa soziologikotik ateratako datuek berdintasunezko ilusio hori plano errealerara ekartzen dute. Emakume eta gizonen kopurua

bertso eskoletan eta eskola-arteetan txapeldun direnen artean, oso-oso antzekoa da; baina 18 urtetik aurrera, emakumeak %20 dira plazan eta gizonak %80. Proporzio horiek ez dira aldatu azken 15 urteetan.

A.A.: Horrek adierazten du nolabait gezurra dela diskriminazio positiboa dagoela.

U.A.: Kopuruz %20 gara, eta plazan okupatzen duguna ere %20 da.

**Genero ikuspegitik, alde handia dago plazetatik txapelketara?**

U.A.: Txapelketa da daukagun balidazio sistema bakarra. Oposaketak dira: gainera, hor epaile talde bat egongo da, eta hark esango du kalitatean maila eman duzun edo ez. Hasteko, gehienak gizonetakoak dira, eta beraien gustua eraikia da, denona bezalaxe. Azken ikerketa soziologikoan, publikoari dagokionez, ikusten da 2005etik 2017ra emakumeen gustua nola aldatu den: beraien bertsolari kuttunen artean, emakumezkoak %10 izatetik —Maialen—, %33,3 izatera igaro dira. Gizonezkoen artean, aldiz, %10ean mantendu da kopuru hori. Epaileak ere gizonak dira eta segur aski gustu hori antzera mantenduko zen. Ondorioz, emakumezko bertsolariak eta gizonak joaten dira txapelketa batera non neurtuak izango diren irizpide kanonikoekin. Eta irizpide kanonikoek patriarkalak izaten jarraitzen dute, ez intentzio txarrez, oraindik ikusten ez direlako baizik. 2017ko finala inoizko

zaharrena eta beti bezain maskulinoa izatea, hurrengo belaunaldia inoizko femeninoena denean, ez da kasualitatea: hor dago muga bat eta autoritate-transferentzia falta bat, eta txapelketa bihurtzen da hori finkatzeko mekanismo. Azkenean, 2017ko txapelketak zertarako balio izan zuen? Esateko: "Ikusten duzue, onenak betikoek izaten jarraitzen dute, hemen 'bersotan' egin behar da, Hernanin bezala". Emakumeek bizi izan zuten presioa, txapelketak eman zien mezua —"Ez zarete iristen"—, gero gainera kristalezko sabaia kuestionatu zen... ni asko kezkatu izan nau kanpotik txapelketak zein mezu ematen dien horretara aurkeztu eta izugarritzko ahalegina egiten duten emakumeei. Ea benetan ez ote garen zigortzen gaituen munstroari jaten ematen ari.

**Hor lehia ere sustatu zen, "finaleko bigarren emakumearen" diskurtso sonatuekin. Nola eragiten diete tentsio horiek bertsolari feministen arteko sareei?**

U.A.: Gorputzean eragiten dizuten arren nik uste —zorionez—, kontzientzia horregatik, orain dela urte batzuk haserre hori kideen artekoa bihur zitekeen bezala, orain sistemaren aurkakoa bihurtzen dela. Badago kontzientzia bat esaten duena: "Hau egiturazkoa da". Ez dauka zentzurik ni Alaia Martinekin haserretzeak, Alaia Nerea Ibarzabalekin eta Nerea Miren Amurizarekin. Elkartuta gaude zentzu horretan; esplizitatu ditugu gauza horiek eta hitz egin dugu

gure artean: "Beldurra sentitu nuen zu finalerdietara sartu zinenean, ea nire plazetan nola eragingo zuen", eta badago hori guztia modu eraikitzaile batean kudeatzeko gogoia. Infografia egiteko elkartu garen laurok gure artean lehiatu izan gara, eta sentitu izan ditugu gauza horiek. Horregatik, une batean, erabaki bat izan zen esatea: "Ezagutuko dugu elkar?". Garrantzitsua da elkarren arteko maitasuna sustatzea, bestearen hauskortasuna ikustea; izan ere, orduan sentitu dezakezu beldurra, zuk ere hori nahi duzulako, baina ikusten duzunean ez daukazula tokirik toki bakarra dagoelako eta besteak hartu duelako, ez zara haserretuko berarekin, baizik eta toki bakarra utzi duen sistemarekin.


A.A.: Infografiaren lehen helburua ikuspegi kolektiboa da. Jakina: gero, norberaren ibilbide artistikoa norberarena da. Baina gauza asko landu litezke, baita artistikoki ere; izan ere, bertsolariak beti entrenatu izan dira elkarrekin.

U.A.: Hasierako ideia Maialenen bertsokeraren genealogia bat egitea zen, baina lorpen feministak haren figuran zentratzeak beldurra ematen zigun, meritokrazian erortzen ariko ginatkeelako: berak egin du, beraz, edozeinek egin dezake, beraz, ez dago mugarik. Askoz eraikitzaileagoa eta errealistagoa iruditzen zitzaigun esatea: Maialenen lorpenak ukatu gabe, eta haiek bultzatuz, desiratuz eta ulertuz egon garela kontuan hartua, bitartean

gu denok lanean genbiltzan; tesiak egiten, ahalduntze bertso eskolara joaten, gai jartzaile feministekin plaza eraldatu nahian, UEUko ikastaroak antolatzen... horrek guztiak balio du Maialenen txapelak adina. Bata bestea gabe antzuak lirakeke.

A.A.: Xabier Aierdik esaten zuen canonak sortzen direla gizartea horiek onartzeko prest dagoenean ere. Jakina da Maialenek bere lan artistikoarekin bere bertsokera irisgarri egin duela, baina beste lur hori guztia ere landu izanak seguru asko erraztuko zuen. Agian gehiago izan da lurrari begiratze bat, han goiko izar bati begiratzea baino.

## «Emakumeek pixkanaka eraiki behar izan ditugu hankamotz edo landu gabe ikusten genituen espazio guztiak»



[Yolanda Mosquera]





**B**erdintasunaren aldeko politika zeharlerroko konpromisoa da Eusko Jaurlaritzako sail guztietan, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ere hainbat ekinbide dauzka martxan sailaren barruan generoaren inguruko kontzientzia sendotu eta berdintasuna bere jarduera guztietara hedatzeko.

*BerdinK*-ren ale honetan mintzagai dugun bertsolaritzari eta generoari buruzko ikerketa ildo estrategiko horren testuinguruan sustatutako proiektuetako bat da, baina ez bakarra. HPSk, izan ere, elkarlan estuan dihardu Emakunderekin: Bitariko Batzorde bat osatzea proposatu dio hari hizkuntza politikak eta berdintasunekoak harilkatzeko, eta elkarlan horrek hainbat fruitu eman ditu dagoeneko. Besteak beste, abian da bi erakundeen artean koordinatutako Berdintasunaren eta Feminismoaren Hiztegi Terminologikoa. Elhuyarrek dihardu egitasmo horretarako aholkularitza lanetan, eta datorren urtean aurkeztuko da.

Auziari sailean zeharlerroko trataera ematen zaiola bermatzeko, sailburuordetzan bertan berdintasunerako lan talde tekniko bat sortu da, zerbitzuberuek osatua eta Josune Zabala, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria, buru duena. Talde horren koordinazio teknikoa Berdintasunerako Unitatearen esku dago, eta haren helburua da hizkuntza politikaren jarduera administratibo, politika eta programa guztietan genero ikuspegia txertatzea; besteak beste, berdintasun klausulak dituzten diru-laguntzak, hitzarmenak eta genero-aurrekontuak bultzatuz. Horretarako, lan-taldeko kideek berdintasun arloko prestakuntza jasoko dute datorren urtean zehar.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lehentasunetako bat da bere menpe dauden entitate publikoetan berdintasun politikak sustatzea. Horretarako, hainbat ekinbide abiatu ditu jada. HABEn, esaterako, berdintasun teknikari lanpostu bat sortu da aurten, eta dagoeneko abian da etorkizuneko berdintasun planaren oinarri izango den diagnosia. Etxepare Institutua ere lan horretan ari da, hain zuzen ere. Bestalde, datorren urtera begira hainbat ikastaro antolatuko dira Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren barruan, zerbitzuberu guztiek eta langileen erdiek gutxienez parekidetasunari buruzko prestakuntzaren bat jaso dezaten. Ildo beretik datoz legegintzaldia amaitu aurretik abiatu nahi diren beste hainbat proiektu ere; besteak beste, HPSk erabiltzen dituen hainbat eragiketa estatistiko —Inkesta Soziolingusitikoa, adibidez— berraztertuko dira genero ikuspegitik; hartara, ikerketetako aldagaiak, adierazleak eta datuak jasotzeko moduak genero ikuspegitik egokiak ote diren aztertuko da hainbat adituren laguntzarekin. Horrek erronka berriak identifikatzeko ere balioko du, esate baterako, nola eragiten duen generoak aztergaietan, eta nola sustatu daitezkeen horri buruzko ikerketa berriak.

Hain zuzen ere, gaiari buruz hainbat eremutan egin diren eta martxan dauden ikerketa eta egitasmoak jaso eta ikusarazteko asmoz, mapa bat ere osatuko da datorren urtera begira, eta, ondoren, jardunaldi batzuk egingo dira mapak agerian utzitako paisaiatzeko. Udalekin, foru aldundiekin, unibertsitateekin eta, oro har, euskalgintzan eta feminismoan diharduten erakundeekin ideiak eta hausnarketak partekatzeko espazioetako bat izango da foro hori.

Neurriok guztiok gauzatu ahal izateko, sailaren Berdintasun Unitatearen aurrekontua zortzi aldiz handituko da: aurten 5.000 eurokoa izan da, baina datorren urtean 40.000 eurokoa izatea espero da. Horrez gain, Hizkuntza Politikako sailburuordetzak 135.000 euro aurreikusi ditu datorren urterako, genero eta hizkuntza berdintasunean arreta jarriko duten ekintzak gauzatzeko.

## Feministaldia: bost egun bete kultura feminista

Dagoeneko jakinarazi dituzte aurtengo Feministaldirako datak: 2018ko abenduaren 5etik 10era izango da Kultura Feministaren Jaialdia. Ohiko moduan, Donostian egingo dute hamahirugarren



edizio hau, eta Plazandreek taldeak antolatuko du: aurtengo leloa *#Okerrak* izango da. Besteak beste, hitzaldi, mahai-inguru, kontzertu, *performance* eta bestelako arte eta kultur

adierazpenek osatuko dute. Egitarau zehatza oraindik argitaratzeko dagoen arren, aurki jakinaraziko dute [www.feministaldia.org](http://www.feministaldia.org) webgunean eta euren Twitterreko kontuan: [@feministaldia](https://twitter.com/feministaldia).

Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat auziri genero ikuspegitik heltzen die Susa argitaletxearen Lisipe bildumak: besteak beste, espetxeari, gatazka armatuari eta heteroarauari buruzko saiakerak argitaratu dituzte orain arte bilduma horren barruan. Orain, lehenbiziko aldiz, modu kolektiboan sortu eta izenpetutako liburu bat atera dute argitara: *Ezagutzaren Matazak*, Emagin Fundazioko hainbat kide eta ikerlarik elkarlanean ondu dutena. Epistemologia feministari buruzko kezka batetik abiatuta, Euskal Herriko mugimendu feministaren gaur egungo eztabaidagai nagusiei buruzko hausnarketak plazaratzen ditu modu ulerterrazean; erreferentzia sorta zabala eta anitza eskaintzen ditu, eta oro har, munduaren irakurketa feminista urte askotako lana eta, batez ere, lan kolektiboa dela ulertarazten digu. "Behin eta berriz bertara itzultzeko moduko liburua", Aiora Sampetro literatur kritikariaren hitzetan.

LISIPE  
ezagutzaren  
matazak  
EMAGIN

## Lisipe 4: Ezagutzaren Matazak


# Yolanda Mosquera



Yolanda Mosquera (Amurrio, 1973) 2018ko euskal irudigile sonatuenetako bat bihurtu da, Guy de Maupassanten *Roke Txikia* (La Pequeña Roque, Yacaré, 2017) eleberriaren ilustrazio-lanari esker Euskadi Saria jaso baitu kategoria horretan.

Haurtzaroa Aiaraldean igaro ondoren, Arte Ederretan lizentziatu zen Mosquera, diseinu grafikoan espezializatuz. Gerora, Haur Ilustrazioan trebatu zen Bartzelonako Eina Diseinu eta Arte Eskolan. Ordurako hainbat lan zituen eginda irudigintza profesionalean, besteak beste, prentsako artikulua, jolasak eta multimedia aplikazioak ilustratuz eta diseinatuz; marrazketako irakasle ere jardun izan zuen. Bartzelonako egonaldian, ordea, album ilustratuek eragin zioten miresmena, eta haiei heldu zien narrazioak egituratzeko eta adierazpen artistikoko baliabide gisara. Lehenbiziko albuma 2011n argitaratu zuen, Peru Abarka Album Ilustratuen lehiaketa irabazi ostean. Orduetik hainbat aipamen eta sari jaso dituzte haren lanek, besteak beste, *Gatzezko zalditxoak* (Caballitos de sal, Pintar-Pintar, 2013) haur poemategiko bere irudiek. Ilustrazio horietako zenbait nazioarteko erakusketa garrantzitsuetan aurkeztu dituzte, besteak beste, Arabiar Emirerri Batuetan, Hego Korean, Txinan, Mexikon eta Italian.

**Kultura eta Hizkuntza Politika  
Saileko berdintasun aldizkari  
digitala**



**Emakumeen aurkako  
indarkeriari ez**

**No a la violencia  
contra las mujeres**